

LASARTE-ORIAKO UDALBATZARI

INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIARI **BURUZKO MOZIOA**

2021eko azaroaren 5ean, Eusko Legebiltzarreko Jasangarritasunaren, Ingurumenaren eta Ingurune Naturalaren Batzordean, talde parlamentarioek Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketak antolatzeko ponentzia eztabaidatzen ari zela, EAJ eta PSEko talde parlamentarioek Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea aldatzea proposatu zuten 61. zuzenketan (integratutako dokumentuko 227. zenbakikoa).

Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean, eta zuzenketak aurkeztu ondoren, Legebiltzarreko prozeduraren fase aurreratuan dago, epe laburrean onartu dadin.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketetarikoa baten xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legea aldatu eta figura berri bat arautzea da, hau da, PIPS edo Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura sortzea.

Aldaketa horren bidez, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio ustezko ingurumen-hobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura Interes Publiko Goreneko Proiektu izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zabortegeak, araztegiak, erauzketa-proiektuak, etab. Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegia batean golf-zelai bat...). Neurri horrek kolokan jarriko luke indarrean dagoen lurralde antolamenduaren berme-sistema, eta eragin handia izango luke udalen autonomiaren printzipioan.

IPGP Interes Publiko Goreneko Proiektu gisako adierazpena, proposatzen den moduan, ustezko ingurumeneko hobekuntzak ekar litezkeen edozein proiekturen aurrean benetako hobekuntzak izan litezkeenak edo erabaki politiko hutsak izan litezkeenak, ustezko hobekuntza horiek erabateko hierarkia izango lukete, eta egungo lurralde antolamenduko tresnak saihestuko lituzke, hala nola HAPO, LPP, LPS edo LAG; hala gertatuz gero, orain IPGPera egokitu beharko liriteke, eta beharrezkoak diren barne-aldaketak egin ere bai.

"IPGP" figura, beraz, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarritako adostasunaren aurkako eraso bat da. Toki-eremuko autonomia eta demokrazia nabarmen urratzea, udalari ez baitzaio aukerarik ematen bere lurraldearen barruan desegokitzat jotzen dituen erabilerak mugatzeko.

Udal-autonomiaren printzipioa babesteko eta printzipio honek lurralde antolamendurako eta ingurumena babesteko tresnekin duen lotura ere babesteko, bidezkoa da ondoko proposamena egitea.

Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren Legea laster baldintza horietan onartu ahal izatea. Hori dela eta, Lasarte-Oriako Euskal Herria Bildu Udal Taldeak eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos Udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

1. Lasarte-Oriako Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela.
2. Eusko Legebiltzarrari eskatzea errespeta dezala udal-autonomiaren printzipioa eta lurralde-antolamenduko eskumenak garatzeko eta gauzatzeko duen ahalmena, eskumen horiek egungo araudi erregulatzailaren esparruan ezarrita dauden moduan.
3. Lasarte-Oriako Udaleko Osoko Bilkurak EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari eskatzen dio, udalen udal-interesa defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.

4. Eusko Legebiltzarrari eskatzea lurraldearen antolamendurako eta ingurumena babesteko sistemaren egungo bermeak urra ditzakeen "interes publiko goreneko inolako proiekturik" ez dezala ezarri.
5. Lasarte-Oriako Udalaren Osoko Bilkurak mozio honen edukia Eusko Legebiltzarrera eta EUDEL Euskal Udalen Elkartera bidaltzea erabaki du.

Lasarte-Orian, 2021eko abenduaren 1ean

Uxu
e

Uxue
2021.12.0
2 07:55:35
+01'00'

David
Ares

Firmado
digitalmente por
David Ares
Fecha: 2021.12.01
17:30:05 +01'00'